

**ERREPIDEAK.** Kontratua 10 urterako izango da, eta 235 milioi inguru jasoko ditu enpresak



JON URBE / ARGAZKI PRESS

Urtarrila baino lehen aukeratu da A-8 autobidea ustiatu eta mantenduko duen enpresa berria.

## A-8 autobidea ustiatu eta mantentzeko lehiaketa zabaldu du Bidegik

Esleipen enpresak A-1 autobidearen lehen bi zatien lanak ere bere gain hartuko ditu hasieran

Nagore Rodríguez | DONOSTIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak sortutako Bidegi SA azpiegituren enpresak A-8 autobidearen Gipuzkoako zatia ustiatu, mantendu eta artatzeko kontratua enkantera ateratzea erabaki du. Horren berri eman zuten atzo Gipuzkoako diputatu nagusi Roman Sudupek eta Garraio eta Errepideetako diputatu Antton Jaimek. Lehiaketara hainbat enpresa aurkeztea espero du Aldundiak.

2003ko ekainaren 6an hasiko da kontratua, hain zuzen ere Europistas enpresak A-8aren gainean duen kontzesioa ekainaren 5ean amaituko baita. Kontratua 10 urterako izango da, eta behin bakarrik luzatu ahal izango da, gehienez ere bost urterako. Enpresak gutxi gorabehera 235 milioi euro jasoko dituela aurreikusi dute. Esleipen hartzaileak, halaber, A-1 autobidearen lehen bi zatien ustiapen lanak ere bere gain hartuko ditu, urtebete edo birako.

Mantentze lanez gain, enpresak inbertsio batzuk egin beharko ditu lehen hiru urteetan, autobideko elementuak birjartzeko eta ekipo eta instalazioak erosteko.

Bidegik trafikoaren arabera ordainduko dizkio operatzaileari egindako zerbitzuak. Horretarako, autobidea erabiliko

duen ibilgailu kopuruaren eta egindako kilometroen arabera ko tarifa bat ezarriko da.

Autobideko trafikoak hiru bandatan zatitu da, eta horietako bakoitzari tarifa desberdina dago. Trafikoaren arabera ordaintzeak bi helburu dituela adierazi zuen Jaimek: batetik, operatzailea ahal den trafiko gehiena bereganatzen ahalegintzera bultzatzea, eta bestetik, trafikoaren arriskua bereganatzea.

Bestalde, erabiltzaileek A-8 autobidean ordaindu beharreko bidesaria 0,0691 euro kilometroko izatea erabaki zuten, uztailean. Halaber, A-8aren ohiko erabiltzaileei %25 eta %75 birtarteko kenkariak ezartzea hitzartu zuten. A-1 autobidean, berriz, kilometroko 0,0841 eu-

roko bidesaria ezartzea onartu zuten.

### Foru Araua

Eskaintza ekonomikoa aurkeztearekin batera, birjartze obren aurreproiektua eta jarri beharreko ekipo eta instalazioei buruzko agiriak aurkeztu beharko ditu enpresak. Gainera, ustiapen programa, egitasmo ekonomiko-finantzaria, kalitatea bermatzeko plana eta segurtasun eta osasun plana ere aurkeztu beharko ditu. Esleipena hurrengo urteko urtarrila baino lehen egingo da, enpresak zerbitzua ekainean martxan jartzeko denbora izan dezan.

Bestalde, atzo arratsaldean, bide azpiegiturak erabiltzeko kanona eta Bidegi Saren hainbat alderdi arautzen dituen

Foru Arau proiektuaren behin betiko ebazpena onartu zen. Foru Arauak 9 boto izan zituen alde EAJ, EA eta PSE-EE alderdiko kideenak; eta 6 aurka: Gipuzkoako Sozialista Abertzaleak batzarkideenak, eta PP alderdiko kideenak.

Gipuzkoako Sozialista Abertzaleak batzarkide taldeak kanon berriaren atzean dagoen «manipulazioa» salatu, eta PSE-EEren jarrera aldaketa deitoratu du. Halaber, Foru Aldundiak gaia osoko bilkura batera eramateko «beldurra» izan dela adierazi du.

Gehiengo politikoa herriaren iritzieren aurkako erabaki bat hartzeko erabili dutela azaldu zuten atzo, PP eta Gipuzkoako Sozialista Abertzaleak taldeko kideek.

### A-8 DOAN AKORDIO SOZIALA

#### Kanon berria «iruzurra» dela salatu du

Atzo arratsaldean Batzar Nagusietan A-8 autobidearen kanon berria onartzerakoan, eta, bide batez, 2003ko ekainetik aurrera bidesaria luzatzerakoan, «EAJ, EA eta PSOE-EEK iruzurra» egin dutela dio A-8 Doan Akordio Soziala gizarte ekimenak. Elkartearen arabera, «kezka-garria da, hain garrantzitsua den erabaki bat

osoko bilkuratik pasa gabe onartzea». «Kanon berriarekin bidesarian merkealdia izango dela gezurra da», gaineratu du A-8 Doan taldeak. «Ustezko merketze» horren atzean, 30 urteko kontzesioaren luzapena dagoela dio, eta 35 urteko ustiapenaren ondoren, «nahiko etekin» lortu direla gaineratu dute oharrean.

«Euskal Herriko autobiderik nagusia da, eta Bilbo eta Behobia lotzeko beharrezkoa. Horregatik, hiritarrei itzultzeko eskatzen dugu, eta publikoa eta doakoa izatea». Era berean, 2003an kontzesioa amaitzea eskatu dute.

### INGURUMENA

#### Jardunaldiak abiatuko dituzte gaur Tolosaldean hiri hondakin arazoari buruz

Erredakzioa | DONOSTIA

Tolosaldeko Mankomunitateak hainbat bilera informatibo eta eztabaida foro bat antolatu ditu gaur hasita, hiri hondakin kudeaketari buruz eta Gipuzkoan hondakinak errausteko plantak jartzeari buruz herritarrek duten iritzia jasotzeko.

Mankomunitateak jardunaldiak antolatzearen oinarrian Gipuzkoako Foru Aldundiak uztailaren 30ean onartutako plangintza dago. Hiri hondakinak kudeatzeko plan integralaren Aurrerapen Dokumentua onartu zuen Aldundiak egun horretan, eta bertan ezinbestekotzat jo zuen hondakinak errausteko plantak ezartzea hiri hondakin solidoen pilaketari irtenbidea emateko.

Tolosaldeko Mankomunitateak argi dauka «hondakin solidoak etorkizun hurbilerako arazo larria bilakatzen ari direla», eta horri nolako irtenbidea eman behar zaion herritarrekin aztertzea du helburu. Izan ere, urte hasieran itxi behar izan zuten Tolosako San Blas auzoko zabortegia, eta egun Goierriko Sasieta garraiatzen dituzte eskualdean sortzen diren hondakinak. Birziklatzen den hondakin kopurua oraindik txikia dela ere nabarmendu du Mankomunitateak.

#### Lau bilera informatibo eta eztabaida foro bat

Eguno egoeraren erantzuna errausteko plantak diren ala ez aztertzeko, arazoari nolako irtenbidea eman dakioken eta lehentasunak zeintzuk diren ikusteko antolatu dituzte jardunaldiak.

Lehen bilera informatiboa gaur egingo dute Villabonako euskaltegian, 20:00etan; leku berean eta ordu berean beste bilera bat egingo dute urriaren 22an. Bihar eta urriaren 23an, Tolosako Kultur Etxean izango dira bilerak, 20:00etan. Urriaren 16ko arratsaldeko 20:00etan, aldiz, eztabaida foroa egingo dute Tolosako Kultur Etxean.